

87. FITXA Bizikidetza eta giza eskubideen arloko proiektuak garatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako laguntzak

Nori zuzendua: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak eta gainerako toki-entitateak.

Sarbidesteka: [Udalei bizikidetza eta giza eskubideen programetarako dirulaguntzak 2025 urterako - Eusko Jaurlaritz](#)

Erreferentziazko araudia: [EBAZPENA, 2025eko otsailaren 12koa, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariarena, zeinaren bidez laguntzen deialdia egiten baita bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak gauzatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzat](#)

Eremuak: Giza Eskubideak

Zenbatekoa: 250.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/03/19

Laburpena

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateen proiektuak finantzatzeko dirulaguntzen deialdia egitea. Proiektu horiek gure gizartean bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua, eta enpatia eta elkartasuna bultzatu behar dituzte.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Laguntzok jarduera-eremu hauetan sartzen diren programa eta jardueretarikoren bat egitera bideratu beharko dira:

a) Bizikidetza eta Giza Eskubideak:

1. – Partaidetzako, zabalkundeko edo heziketa sozialeko jarduerak, giza duintasunaren, giza eskubideen eta bizikidetza adiskidetuaren aldeko konpromisoa sustatzera zuzenduak.
2. – Indarkeria, terrorismo edo giza eskubideen urraketa mota orori buruzko kontzientzia kritikoa eta deslegitimatzailea gizartean sustatzera bideratutako ekimenak.
3. – Iraganean izandako edozein biolentzia formarekin lotutako gogoeta kritikoko prozesuak eta

gizarteratze-prozesuak babesten dituzten programak, Europan dagoen justizia errestituatiboaren aldeko korrantearen ildotik.

4. – Bizikidetzaren normalizatuaren erronkei buruzko gizarte-partaidetzako eta desberdinen arteko elkarrizketako esperientziak, aniztasuna eta gizarte-elkartzea sustatzen dutenak.

b) Biktimak eta gizarteak:

1. – Terrorismoaren biktimei laguntzeko ekintzak.

2. – Giza eskubideen urraketen biktimei laguntzeko jarduerak, motibazio politikoko biolentziaren testuinguruan.

3. – Biktimen eta gizartearen arteko batasuna ez ezik, biktimek bizikidetzaren alde egindako ekarpena ere sustatzen duten programak, biktimok bizikidetzaren horren aurrerapenen partaide diren aldetik.

c) Dibertsitatea eta elkartasuna:

1.– Balio hauek sustatzen dituzten proiektuak: dibertsitatearen kudeaketa positiboa eta arrazakeriaren, xenofobiaren edo gorroto-delituen prebentzioa.

2.– Desberdintasunaren, diskriminazioaren, injustiziaren edo bazterketaren forma larrienen aurrean elkartasunaren eta inplikazio sozialaren balioak sustatzen dituzten esperientziak.

3.– Biolentziaren, gerraren eta nazioarteko terrorismoaren adierazpen berrien aurrean, elkartasun, inplikazio eta mobilizazio sozialeko ekintzak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuak **2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko irailaren 1era** egin ahalko dira.

Laguntzen zenbatekoa

Entitate onuradun bakoitzak, gehienez, **15.000 euro** jaso ahal izango ditu proiektuko, eta deialdi honetan jaso ditzakeen laguntzen gehieneko zenbateko osoa ezingo da inolaz ere izan **50.000 euro** baino handiagoa.